# Antsoain BIM Ansoáin

Antsoaingo
Udalaren informazio aldizkaria

Boletín de información Municipal
de Ansoáin

2022 Otsaila - Febrero • nº 27. alea











## 2021eko Gabonak Navidad 2021











**Argitaratzailea:** Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Egilea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa. Edita:** Ayuntamiento de Ansoáin. **Consejo de Redacción:** Silvia Miranda, Arantxa Gambra, Patricia Abad, Jabyer Andueza, Mª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. Tirada: 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2022ko apirila – Próximo BIM: abril 2022)

## ANTSOAINGO AURREKONTUAK 2022rako

Joan den azaroan, Antsoaingo 2022rako aurrekontuak onetsi ziren, Eh Bildu, Unidas Izquierda Ezkerra Podemos eta Geroa Bai udal taldeek aldeko botoa emanda. %6,8 hazi dira, 10.134.069,02 eurora bitarte. Hona hemen aurrekontuetako ildo nagusiak:

### EGUNEKO ZENTRO SOZIOKOMUNITARIO BERRIA

115.000 € bideratu dira eguneko zentro soziokomunitario berria sortzen laguntzeko. Prozesua egiten ari da, Udalak adinekoei eta/edo mendekoei ematen dien arreta hobetzeko. Partida horretarako dirua Nafarroako aurrekontu orokorretatik iritsiko da, eta diru-sarreren atalean dago jasoa.

Aurrekontuetan, bestalde, 65.000 euroko partida bat dago aurreikusia adinekoei eta/edo mendekoei zerbitzuak emateko.

### MERKATARITZA TXIKIA

Merkataritza txikia sustatzeko jardueretarako partida berritu eta 10.000 eurotan handitu da; beraz, iazkoan baino bi aldiz diru gehiago baliatuko da 2021ean sektore horretarako landu den ekintza-planetik heldu diren erronkei aurre egiteko.

### KULTURA

Aurrekontuen arabera, 21.000 euro gehiago bideratuko dira kultur alorrera. Bestalde, 10.000 euro gehiago izanen dira aurrekontuetan, uda partean antolatzen diren kultur jarduerei begira.

### MUGIKORTASUN JASANGARRIA

60.000 €-ko partida bat ezarri da 2021ean onetsitako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planetik datozen jarduketak egiteko.

### AGENDA 2030

Jasangarritasuna kudeatzeko atalean, halaber, diru gehiago bideratu da Antsoaingo Udaleko Agenda 2030erako. Partida hori, guztira, 19.100 €-tan handitu da.

### ETXEBIZITZEN BIRGAITZE ENERGETIKOA

Aurrekontuetan ere jaso dira Nasuvinsa enpresa publikoarekin sinatutako “Elena primavera” hitzarmenetik heldu diren konpromisoak. Hitzarmenaren bidez, izan ere, Antsoaingo etxebizitza-eraikin

## PRESUPUESTOS DE ANSOÁIN PARA 2022

El pasado mes de noviembre se aprobaron los presupuestos de Ansoáin para 2022, con los votos favorables de los grupos municipales de Eh Bildu, Unidas Izquierda Ezkerra Podemos y Geroa Bai. Éstos aumentan su cuantía en un 6,8% hasta los 10.134.069,02 €. A continuación, las líneas principales que contienen:

### NUEVO CENTRO DIURNO SOCIOCOMUNITARIO

Se destinan 115.000 € a avanzar en la creación del nuevo centro diurno socio comunitario, proceso que se viene desarrollando con el objetivo de mejorar la atención desde el ámbito municipal hacia las personas mayores y/o dependientes. Esta partida va a ser sufragada a través de los presupuestos generales de Navarra con su correspondiente reflejo en el capítulo de ingresos.

En relación también a las personas mayores y/o dependientes, el presupuesto contempla una partida de 65.000€ destinada a la prestación de servicios a ese tramo de población.

### PEQUEÑO COMERCIO

Se renueva la partida destinada a actuaciones para incentivarlo aumentándola en 10.000 €, duplicando así su cuantía para hacer frente a los retos derivados del plan de acción para el sector que se ha elaborado en 2021.

### CULTURA

Los presupuestos recogen un aumento económico total para el área de 21.000 €, aumentando en 10.000 € la consignación presupuestaria para las actividades culturales programadas durante el verano.

### MOVILIDAD SOSTENIBLE

Se introduce una partida de 60.000 € para actuaciones derivadas del Plan de Movilidad Urbana sostenible de Ansoáin aprobado en 2021.

### AGENDA 2030

También en el capítulo de gestión de la sostenibilidad se produce un aumento de los recursos económicos para la Agenda 2030 del Ayuntamiento de Ansoáin, que aumenta en su conjunto la cantidad de 19.100 €.

### REHABILITACIÓN ENERGÉTICA DE VIVIENDAS

Se reflejan también en estos presupuestos los compromisos económicos adquiridos mediante la firma con la em-



Argitaratzailea: Antsoaingo Udala · Edita: Ayuntamiento de Ansoáin · DL/LG: NA 942-2016

batzuetako inguratzaile termikoak hobetuko dira eraginkortasun energetikoaren ikuspegitik. Konpromisoen artean dago 100 mila euroko partida mantentzea, aipatu proiektua garatuko den hiri-eremuetan diruz estu dabiltzan pertsonei laguntzeko.

### BERDINTASUN POLITIKA
Gastu sozialean, halaber, eutsi zaio aurrekontuaren %1 Berdintasun Alorrera bideratzeko konpromisoari, indarrean den Berdintasun Ordenantzak ezarritakoa betetzeko.

### LGTBI+ KOLEKTIBOA
Aurrekontuetan 3.000 euroko partida berria sartu da LGTBI+ kolektiboari laguntzeko jarduketak egiteko.

### INBERTSIOAK
Inbertsioen atalean, 511.011,61 euroko aurreikuspena dago jasoa, hau da, 2022rako aurrekontuaren %5. Hainbat jarduketa aurreikusi dira, Udaleko alorrek eskatutakoak; adibidez, 55.000 euro bideratu dira ibilgailu berri bat erostera, egun zerbitzuan ari den polizia-furgoiaren ordez.
Gainera, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Legea 2022. urterako malgutu denez, diruzaintza gerakina askatasunez erabil daiteke gastu orokorretarako. Beraz, aukera horretatik abiatuta, heldu den urterako aurrekontu proposamenean jasota ez dauden inbertsioak egin litezke 2022an, urte osoan proposatu eta aztertzen ahalko direlako.

### LANGILEAK
Langileria atala %2,9 igotzea dago aurreikusia, eta horren barnean, soldata publikoak %2 igoko dira; halaber, maila eta antzinatasuna egokitu eta 2022rako plantilla organikorako proposamenean jasotako soldata-osagarri batzuk hobetuko dira. Era berean, langile-baliabideak handitzea dago aurreikusia herritarrei arreta emateko administrazio alorrean, eta urtean zehar zerbitzuetan izan daitezkeen ordezkapenak egiteko dirutza ere bai.
Era berean, alor batzuendako sostenguari emanen zaio segida, enplegua sustatzeko hainbat programaren bidez, eta prestakuntza atala 11.000 eurotan handitu da.

presa pública Nasuvinsa del convenio Elena Primavera, destinado a la mejora de las envolventes térmicas de edificios de viviendas de Ansoáin desde el punto de vista de la eficiencia energética. Entre esos compromisos está el mantenimiento de la partida de 100 mil euros para apoyar a las personas en situación de vulnerabilidad económica en las áreas urbanas de desarrollo del citado proyecto.

### POLÍTICA DE IGUALDAD
Continuando con el capítulo social, se mantiene el compromiso de destinar el 1% del presupuesto al Área de Igualdad, en cumplimiento de lo recogido en la Ordenanza de Igualdad vigente.

### COLECTIVO LGTBI+
Los presupuestos recogen una nueva partida de 3.000 € para actuaciones relacionadas con el apoyo al colectivo LGTBI+.

### INVERSIONES
El capítulo de inversiones tiene una previsión de 511.011,61€, que supone el 5% del Presupuesto para 2022, contemplándose una serie de actuaciones solicitadas desde las diferentes áreas del Ayuntamiento, por ejemplo, 55.000 € para la compra de un nuevo vehículo que reemplace al furgón policial actualmente en servicio.
Además, la flexibilización de la Ley de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera contemplada para el año 2022, admite la posibilidad de utilizar libremente el remanente de tesorería para gastos generales. Partiendo de esa posibilidad, en 2022 se podrían realizar inversiones que no se reflejan en la propuesta de presupuestos para el próximo año, ya que se podrán estudiar y proponer a lo largo del mismo.

### PERSONAL
Se contempla el incremento del 2,9% del capítulo de personal, que incluye la subida del 2% de los salarios públicos, la adecuación de grados y antigüedad, la mejora de algunos complementos salariales recogidos en la propuesta de plantilla orgánica para 2022, la previsión de incremento de los recursos de personal en el área administrativa de atención ciudadana y la dotación prevista para la cobertura de sustituciones que se puedan producir durante el año en los diferentes servicios.
De la misma manera, se da continuidad al apoyo a algunas áreas a través de diferentes programas de promoción de empleo y el capítulo de formación aumenta su cuantía en 11.000 €.



## BERDINTASUN ZERBITZUA

### AHO BATEZ GAITZETSI DIRA ANTSOAINGO ERASO MATXISTA ETA TUTERAKO ERAILKETA MATXISTA

Urtarrilaren 17an Antsoaingo emakume bati eraso egin ziotela jakinik, Udalak adierazpen instituzionala onetsi zuen aho batez eraso matxista hori gaitzesteko eta, era berean, emakumeen aurkako indarkeria mota ororen kontrako arbuioa agertzeko.

Adierazpenaren bidez, Udalak erabateko sostengua eman nahi izan zion erasoa pairatutako emakumeari eta gogora ekarri zuen emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria dela. Era berean, lan egiten jarraitu beharra nabarmendu zuen, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko, haien segurtasuna hobetzeko eta emakumeek beren askatasuna ingurune mota guztietan erabat erabil dezatela bermatzeko, bai eta Berdintasunaren aldeko politika publikoak bultzatzeko ere.

Udalak, herriko mugimendu feministarekin batera, dei egin zien herritarrei hilaren 19ko elkarretaratzera joateko, indarkeria matxistari arbuio tinkoa erakuste aldera eta indarkeria matxistetatik biziraun duten emakumeei sostengua emate aldera.

Gertakari horren aurretik, Antsoaingo Udalak, halaber, bere gaitzespenik tinkoena adierazia zuen Tuteran joan den urtarrilean gertaturiko erailketa matxistaren aurka.

Berdintasun Ministerioak emaniko datu ofizialen arabera, 2003tik hona, 1.126 emakume hil dira beren bikotekideek edo bikotekide ohiek erailik. Izebergaren punta dira, aski eta sobra baitakigu datuek emakumeen aurkako indarkeriaren modurik agerikoena bakarrik erakusten dutela. Zenbaki horien atzean, emakume eta neskato asko ari dira aurre egiten beste indarkeria mota askori, indarkeria mota batzuk ikusezin bihurturik eta normalizaturik baitaude eguneroko bizitza sozialean: indarkeria psikologikoa, sexu-indarkeriaren adierazpen guztiak, indarkeria instituzionala, indarkeria

## SERVICIO IGUALDAD

### CONDENA UNANIME A LA AGRESIÓN MACHISTA DE ANSOÁIN Y AL ASESINATO MACHISTA EN TUDELA

Ante el conocimiento de un nuevo caso de violencia contra una mujer de Ansoáin el pasado 17 de enero, el ayuntamiento aprobó por unanimidad una declaración institucional para condenar esta agresión machista, así como mostrar su rechazo hacia todo tipo de violencia contra las mujeres.

A través de esta declaración se quiso trasladar todo el apoyo a la mujer agredida, y contextualizar la violencia contra las mujeres como una grave vulneración de los derechos humanos, También se volvía a hacer hincapié en la necesidad de seguir trabajando para eliminar la violencia contra las mujeres, mejorar la seguridad y garantizar el pleno ejercicio de la libertad de las mujeres en todo tipo de entornos, así como en el impulso de las Políticas Públicas de Igualdad.

El ayuntamiento, conjuntamente con el movimiento feminista del pueblo, hacía un llamamiento para acudir el pasado 19 de enero a la concentración para mostrar un firme rechazo a la violencia machista y apoyo a las mujeres supervivientes de las violencias machistas.

Previamente a este hecho, el Ayuntamiento de Ansoáin también había trasladado su firme repulsa frente al asesinato machista ocurrido en Tudela el pasado mes de enero.

Y es que desde 2003, según datos oficiales del Ministerio de Igualdad, 1.126 mujeres han sido asesinadas por sus parejas o exparejas. Estos números son solo la punta del iceberg, sabemos de sobra que estos datos solo nos muestran la forma más visible de la violencia contra las mujeres. Porque detrás de esas cifras hay mujeres y niñas enfrentando otras muchas formas de violencia, algunas de ellas invisibilizadas y normalizadas en el contexto social cotidiano: la violencia psicológica, las diferentes manifestaciones de la violencia

Indarkeria matxistarekin zerikusia duen egoeran bazaude, jo ezazu:
**Antsoaingo Udaltzaingora**
**Telefonoa: 609 419 444**
Posta elektronikoa: policía@ansoain.es
24 orduko arreta ordutegia, astelehenetik igandera

Eskura diren beste baliabide batzuk:
**Genero-indarkeriaren biktimei oso-osoko arreta emateko taldea (EAIV).**
**Telefonoak: 948 00 49 52 eta 948 00 49 53**
Posta elektronikoa: eaiv.comarca@pauma.es
Arreta ordutegia
Astelehenetik ostegunera, 8:00 - 19:00
Ostiraletan, 8:00etatik 17:00etara

Si te encuentras en una situación de dificultad relacionada con violencia machista, puedes contactar con:
**Policía Municipal de Ansoáin**
**Teléfono 609 419 444**
Email: policía@ansoain.es
Horario de atención 24 horas de lunes a domingo

Otros recursos de atención disponibles
**Equipo de Atención Integral a Víctimas de Violencia de Género (EAIV)**
**Teléfonos 948 00 49 52 y 948 00 49 53**
Email: eaiv.comarca@pauma.es
Horario de atención:
Lunes a jueves de 8:00 a 19:00 h.
Viernes de 8:00 a 17:00 h.






ekonomikoa edota indarkeria sinbolikoa. Indarkeria, izan ere, esparru guztietan gertatzen da, publikoetan zein pribatuetan, bai eta klase sozial eta kultur testuinguru guztietan ere.

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da, bai eta emakumeen oinarrizko askatasunen aurkakoa ere. Hori dela eta, Administrazio Publikoek emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko jendartea eraikitzen lagundu behar dugu bai legez, baita politikoki eta etikoki ere.

sexual, la violencia institucional, la violencia económica o la violencia simbólica. La violencia se da en todos los ámbitos, públicos y privados, y en todas las clases sociales y contextos culturales.

La violencia contra las mujeres supone una grave vulneración de derechos humanos, que atenta contra las libertades fundamentales de las mujeres, y por ello las Administraciones Públicas tenemos la obligación legal, política y ética de contribuir a la construcción de una so libre de violencia contra las mujeres

## BERDINTASUN ZERBITZUA

### ANTSOAINGO DOKUMENTAL FEMINISTEN II. ZIKLOA

Antsoaingo dokumental feministen zikloarekin itzuliko gara! Otsailaren 24tik aurrera, hileko azken ostegunetan, hainbat dokumental proiektatuko ditugu, hainbat gai jorratuz eta ikuspegi feministatik.

Otsailean, Bidez-Bide elkartearen EN TRÁNSITO dokumentalarekin emanen diogu hasiera zikloari, Oskar Tejedorrek egina. Bertan jorratzen dira, batetik, egonkortasun ekonomikoa lortu nahian Europara bakarrik migratzen duten milaka ama latinoamerikarren errealitateak eta, bestetik, seme-alabekin dituzten urrutiko harremanak eragiten dituen ondorioak.

Dokumentala **Antsoaingo Antzokian proiektatuko da otsailaren 24an, 19:00etan, eta sarrera doakoa izanen da.**




## SERVICIO IGUALDAD

### II CICLO DE DOCUMENTALES FEMINISTAS EN ANSOÁIN

¡Volvemos con el ciclo de documentales feministas en Ansoáin! A partir del 24 de febrero, y coincidiendo con los últimos jueves de mes, proyectaremos varios documentales, abordando diferentes temáticas y desde diferentes miradas feministas.

En febrero inauguraremos el ciclo con el documental EN TRÁNSITO, de la asociación Bidez-Bide, realizado por Oskar Tejedor, que aborda las realidades de miles de madres latinoamericanas que migran solas a Europa para encontrar una estabilidad económica y las consecuencias de esa relación trasnacional a la distancia que establecen con sus hijos e hijas.

El documental se proyectará en el **Teatro de Ansoáin el día 24 de febrero a las 19:00 horas, y la entrada al mismo será gratuita.**

## BERDINTASUN ZERBITZUA

### ESCUELA DE EMPODERAMIENTO FEMINISTA



Martxoan, Ahalduntze Feministarako Eskola itzuliko da ikastaro berri bat eskaintzeko: **"Maitasun propioa, zaintza eta harremana geure buruarekin"**, Laura Latorre Hernandok emana. Laura aditua da hezkuntza emozionalean eta 'Polifonía amorosa' liburuaren egilea.

Bizitzak erdigunean, baina nork zaintzen ditu gure bizitzak? Azkenaldian, ugari entzuten ari gara zaintzak erdigunean jartzea eta egiazki duten garrantzia ematea, zaintzak zuzentasunez eta berdintasunez banatzea... Alabaina, oraindik ere emakumeok gara zaintzaile nagusiak eta, askotan, geure beharrak eta desioak bazterrean uzten ditugu beste pertsona batzuenak artatzeko.

Hori dela eta, ikastaro honen asmoa da, besteak beste, geure burua zaintzea eta denbora tarte bat erabiltzea geure buruarekiko maitasunaz gogoeta egiteko. Hau da, barne-entzuketa egitea, emozioak onartu eta haiei lekua uztea, gure beharrak modu ez bortitzean komunikatzen ikastea eta, horrela, denon artean, maitasun propio feminista bat eraiki ahal izatea.

**LEKUA: GIZARTE ETXEA - ORDUTEGIA: 17:30etik 19:30era**
**MATRIKULA: 10€. Izena emateko epea, otsailaren 15etik 24ra, 012ra deituz**
**DATAK: martxoak 1-15-22-29 eta apirilak 5 (5 saio).**

## SERVICIO IGUALDAD

### ESCUELA DE EMPODERAMIENTO FEMINISTA

En marzo vuelve la Escuela de Empoderamiento feminista con un nuevo curso: **"Amor propio, cuidado y relación con una misma"**, dinamizado por **Laura Latorre** Hernando. Laura es especialista en educación emocional y autora del libro 'Polifonía amorosa'.

Las vidas al centro, pero ¿quién cuida nuestras vidas? Últimamente estamos escuchando mucho esto de poner los cuidados en el centro, de darles realmente la importancia que tienen, de repartir los cuidados de manera justa y equitativa... Sin embargo, la realidad es que las mujeres seguimos siendo las principales cuidadoras, dejando muchas veces de atender nuestras propias necesidades y deseos para atender los de otras personas.

Por ello, la intención de este curso es, entre otras cosas, cuidarnos y dedicarnos un rato a repensar sobre el amor a una misma. Practicar la escucha interna, dejar sitio a las emociones y aceptarlas, aprender a comunicar nuestras necesidades de forma no violenta, y así poder construir colectivamente un amor propio feminista.

**LUGAR CENTRO CÍVICO - HORARIO 17:30 A 19:30 h.**
**MATRÍCULA: 10€.**
**PLAZO DE INSCRIPCIÓN: Del 15 al 24 de febrero, a través del 012**
**FECHAS: 1-15-22-29 de marzo y 5 de abril (5 sesiones).**



## HARROBI GAZTELEKUA

Kaixo Antsoain!

Ezer idazten hasi baino lehen, Olentzero eguna posible egin zuten lagun guztiei eskerrak emanendizkiegu, eta nola ez, beti lan egiteko prest dauden gure Gaztetxiki eta Gaztehandiei! Azken momentuko aldaketak ez dira errazak izan, beraz zorionak denoi egindako lanagatik! Lan handia zegoen ikusi zenuten guztiaren atzean.



Bestalde, Harrobin Gabonetatik bueltan gaude eta programa guztiak martxan jarri ditugu jada. Urtarrila jarduera bereziez beteta izan dugu, haien artean: Neguan Harrobirekin sukaldatzen, "Love Simon" LGTBI filma Antsoaingo antzokian eta Euskal dantzak.

## CASA DE LA JUVENTUD HARROBI

Hola Ansoáin!

Antes de escribir nada queremos dar las gracias a todas las personas que hicieron posible el día de Olentzero, y cómo no, a Gaztetxiki y Gaztehandi, ¡Siempre dispuestas a trabajar! ¡Felicidades a todas las personas por todo el trabajo! Teniendo en cuenta los cambios de última hora y para lograr el resultado tan bonito que pudimos ver desde nuestras casas hubo un gran trabajo comunitario.

Por otro lado, en Harrobi ya estamos de vuelta de las navidades y ya están en marcha todos nuestros programas. Hemos tenido un enero lleno de actividades especiales, entre ellas: Cocinando con Harrobi en invierno, la película LGTBI "Love Simon" en el teatro de Ansoáin y Euskal dantzak.

HARROBI
Antsoaingo Gaztelekua
Casa de la Juventud de Ansoain

## ANTSOAIN, ZAINTZEN DUEN HERRIA

Bukatu egin da herritarren proposamenak eta beharrak jasotzeko prozesu partehartzailea adinekoen eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen zaintzei dagokienez, eta orain, horri buruzko lehen ekimenak jartzen ari dira abian.

Antsoaingo Udalak kanpaina abiarazi du jendaurreko zerbitzua duten establezimenduek konpromisoa har dezaten herritarren zaintzarekin; batez ere, adinekoekin eta/edo dibertsitate funtzionala dutenekin. Horrela. Hainbat saltokik eta tabernak bat egin dute “**Antsoain, zaintzen duen herria”** kanpainarekin eta, horren bidez, establezimendu horiek konpromisoa hartu dute zaintza kontuan hartuko duen gune bat sortzeko. Jendaurreko arreta duen edozein enpresak egin dezake bat ekimenarekin, desarrollolocal@ansoain.es helbidera idatziz.

Bestalde, joan den abenduan, Nerea hasi zen lanean Eguneko Zentro Komunitarioan (lehenagoko Gizarte Etxean), dinamizatzaile soziokulturala baita, zaintzaren inguruko proposamenak eta ekimenak bultzatzeko. Zentroa, astelehenetik larunbatera dago zabalik, 16:30etik 21:00etara.

Era berean, “Antsoain, zaintzen duen herria” ekimenaren barnean, osasunari eta zaintzei buruzko hainbat informaziokanpaina eginen dira herritar guztientzat, hala nola iktusari eta hura prebenitzeari buruzko informazioa, aldizkari honetan bertan eskura duzuna.




## ANSOÁIN, COMUNIDAD QUE CUIDA

Después de finalizar el proceso participativo para recoger las necesidades y propuestas de la ciudadanía respecto a los cuidados de las personas mayores y con diversidad funcional, se están poniendo en marcha las primeras iniciativas al respecto.

El Ayuntamiento de Ansoáin ha lanzado una campaña para que los establecimientos con servicio de cara al público se comprometan a ofrecer distintos cuidados a la ciudadanía, especialmente a aquella más vulnerable; las personas mayores y/o con diversidad funcional. De esta manera varios comercios y bares se han unido a la campaña **“Ansoáin, comunidad que cuida”**, donde se comprometen a generar un espacio que tenga en cuenta el cuidado. A esta iniciativa puede sumarse cualquier empresa con atención al público, escribiendo a: desarrollolocal@ansoain.es.

Por otro lado, en diciembre comenzó a trabajar en el Centro Diurno Comunitario (antiguo Centro Cívico) Nerea, como dinamizadora sociocultural para impulsar diferentes propuestas e iniciativas entorno al cuidado. El centro está abierto de lunes a sábado de 16:30 a 21:00h.

También dentro de la iniciativa “Ansoáin comunidad que cuida” se van a desarrollar diferentes campañas informativas relacionadas con la salud y los cuidados dirigidas a toda la ciudadanía, como la información sobre el ictus y su prevención y detección que puedes ver en este mismo boletín.

**Establezimendu parte-hartzaileen zerrenda**
**Listado de establecimientos participantes**

Beauty & Color, Oihan Asesores, Electrojis Navarra, Dietética Senda, Nhoa Estilistas, Bar Tolo, Axa Seguros, Aise, Bar Antxe, Txinparta Taberna, El Cuervo Blanco, Tintacartuchos Ansoáin.









ANTSOAIN, ZAINTZEN DUEN HERRIA · ANSOÁIN, COMUNIDAD QUE CUIDA ·

Importantes descuentos
en tarifa y matrícula para hermanos y familia numerosa
guardería
haurtzaindegia
lorea
información y matrículas de 16:00 a 17:00 h.
e-mail: guarderialorea@hotmail.es
paseo de los donantes de sangre nº 9, bajo
31015 pamplona-iruña tfno. 948 078 642
atendemos también por WhatsApp 622 80 75 49
www.guarderialorea.es

## DANTZABIDEA

Ezkaba ikastetxeko bosgarren mailako ikasleok urtarrilaren lehenengo astean dantza programa bat egin dugu. Egunero, ordubeteko lan-saioa izan dugu, dantzari profesionalek gidatuta, eta dantza garaikidean eta koreografia sortzeko prozesuan gidatu gaituzte. Azken egunean, familiek Dantzaz konpainiaren emanaldiaz eta gure koreografiaz gozatzeko aukera izan dute Antsoaingo Antzokian.

Aste bakar batean koreografia bat sortzeko gai izan gara. Erronka eta aste ahaztezina izan da!



## DANTZABIDEA

Los alumnos de quinto curso del colegio Ezkaba hemos realizado la primera semana de enero un programa de danza. Hemos tenido una sesión de trabajo diaria de una hora guiada por bailarines profesionales que nos han introducido en la danza contemporánea y en el proceso de creación coreográfica. El último día las familias han podido disfrutar de la actuación de la compañía Dantzaz y de nuestra coreografía en el Teatro de Ansoáin.

En una sola semana hemos sido capaces de crear una coreografía, iha sido un reto y una semana inolvidable!




## 2022 ANTSOAIN KOMIKI BOOM

Hirugarren urtez, otsailaren 7tik 19ra, Komiki eta Ilustrazio Sozialari buruzko jardunaldietako proposamenez gozatzeko aukera izango dugu Antsoainen.

Aurten, bi erakusketa bisitatu ahal izango dira, Javier de Isusiren **Asylum** liburutegian eta **Los Apaches de París** Pamiela argitaletxearena Txokogorrin.

Hainbat egilek bisitatuko gaituzte euren lanak aurkezteko: zehazki, María de la Fuentek eta Sergio Izquierdok **Gamonal: en el eco de un mismo recuerdo** lanarekin; Javier Pérez de Zabalzak **Alcatraz de la A a la Z** lanarekin; Iñaki Begoñak eta Iñaketek **El pico de los Cuervos**, eta Alex Tellok eta Julen Ribasek **Sua** Su ta Garri buruzko lanarekin.

Agustin Ferrerrek **Arde Cuba** lanari buruz hitz egiteko bisitatuko du duela gutxi abian jarritako komiki irakurketa kluba.

Serigrafia tailerra ere izanen dugu eta **Josep** (2020) animaziozko filmaz gozatu ahal izanen dugu, besteak beste, Europako Zinemaren Sarietan Animaziozko Film Onenaren saria irabazi duena.

Programazio guztia sare sozialetan kontsultatu ahal izanen da.

Programazioak aldaketak izan ahalko ditu osasun egoeraren arabera.




## 2022 ANTSOAIN KOMIKI BOOM

Por tercer año consecutivo del 7 al 19 de febrero podremos disfrutar de las propuestas de las Jornadas de Comic e Ilustración Social en Ansoáin.

Este año, se podrán visitar dos exposiciones, **Asylum** de Javier de Isusi en la biblioteca y **Los Apaches de París** en la Editorial Pamiela en el Txokogorri, que serán presentadas por sus autores.

Varios autores y autoras nos visitarán para presentarnos sus trabajos, María de la Fuente y Sergio Izquierdo con **Gamonal: en el eco de un mismo recuerdo**; Javier Pérez de Zabalza, con **Alcatraz de la A a la Z**; Iñaki Begoña e Iñaket con **El pico de los Cuervos** y **Sua**, trabajo sobre Su ta Gar de Alex Tello y Julen Ribas

Agustín Ferrer visitará el club de lectura de cómic puesto en marcha recientemente para conversar sobre su trabajo **Arde Cuba**.

Tendremos también un taller de serigrafía y podremos disfrutar de la película de animación **Josep** (2020), ganadora entre otros del premio a la Mejor Película de Animación en los Premios del Cine Europeo

Toda la programación podrá ser consultada en redes sociales.

La programación puede ser modificada dependiendo de la situación sanitaria.

## ANTSOAINGO MUSIKA ESKOLA

Diotenez, maitasunaren hilabetean gabiltza; beraz, gure maitasuna aitortuko dugu... Musikaz maiteminduta gaude! Eta gauza on guztiek bezala, zuekin partekatu nahi dugu; beraz, kode hauek utziko dizkizuegu Eskolako jarduera astez aste zertan den jakiteko eta hiruhileko bakoitzean grabatzen ditugun emanaldiak entzuteko.

Musikak entzuten irakasten digu egunero, bai eta adi egoten eta elkarlanean aritzen ere. Halaber, hitzik gabeko hizkuntzan adierazteko aukera ematen digu, dibertigarria zaigu, eta izugarri pizten du gure sormena... Liluragarria zaigu benetan!




## ESCUELA DE MUSICA DE ANSOÁIN

Dicen que este es el mes del amor así que nos declaramos... ¡Enamorados de la música! Y, como todo lo bueno, queremos compartirlo, así que os dejamos estos códigos para que podáis seguir la actividad de la Escuela semana a semana y escuchar las actuaciones que grabamos cada trimestre.

La música nos enseña cada día a escuchar, prestar atención y colaborar, nos anima a expresarnos en un lenguaje sin palabras, nos divierte y hace que nuestra creatividad se dispare... ¡No podemos resistirnos!

KULTUR JARDUERAK OTSAILA

FEBRERO ACTIVIDADES CULTURALES

**HITZALDIA. GAZTELANIAZ - CHARLA. EN CASTELLANO**

ASTEAZKENA **2** MIÉRCOLES

Loza Kulturgunea (ludoteka)
Espacio Cultural Loza (ludoteca)
17:00-19:00

0-4 urteetako haurrak dituzten familientzat
Dirigido a familias con hij@s de 0 a 4 años



## ELIKADURA OSAGARRIA: BABY LED WEANING

## ALIMENTACIÓN COMPLEMENTARIA: BABY LED WEANING

**EDURNE CIRIZA, ANTSOAINGO OSASUN ZENTROKO PEDIATRA / PEDIATRA DEL CENTRO DE SALUD DE ANSOÁIN**

**Antolatzailea:** Errespetuzko hazieraren aldeko Antsoaingo Elkartea.
Informazioa: 660 135 957. Kobid-19 neurriak.

**Organiza:** Asociación de crianza respetuosa Izan de Ansoáin.
Información: 660 135 957. Medidas covid-19

OSTIRALA **4** VIERNES

## TXOKOSTIRALA / VIERNESTXOKO

| | | |
|---|---|---|
| Antsoaingo kontsumo taldearen aurkezpena. | **18:00** | Presentación del grupo de consumo de Antsoain. |
| Bertako, garaiko eta produktu ekologikoekin pintxo tailerra antolatuko da. | | Taller de pintxos con productos de ecológicos, de temporada y locales. |
| Kontzertua "LES CUISINIERS" jazz taldearekin. | **20:00** | Concierto con el grupo de jazz "LES CUISINIERS", |

Inork entzumen tresna erabili nahi badu Antzokian ematen diren antzezpenetarako, erreserba egin beharko du Kultura Zerbitzura deituta (948 13 34 10), cultura@ansoain.es helbidera idatzita, edo, antzezpenaren egunean bertan, antzokiko langileei eskatuta.

Las personas que deseen utilizar alguno de los equipos de audición en las representaciones programadas en el Teatro, lo podrán reservar llamando por teléfono al servicio de cultura (948 13 34 10), escribiendo a cultura@ansoain.es o solicitarlo al personal de sala el mismo día de la función.

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

RED DE TEATROS DE NAVARRA
NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

ANTZERKIA. GAZTELANIAZ - TEATRO. EN CASTELLANO

OSTIRALA **4** VIERNES

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
20:00 h. (90 min)

YLLANA

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto




## GREENPISS

GREENPISS, ekologiari eta gizateriaren etorkizunari buruzko satira dibertigarria. Desama EKO-ILOGIKOA. Berotze globala, plastikoen gehiegizko erabilera, milaka animalia-espezieren sarraskia, kontsumismo neurrigabea eta gure espeziearen desagerpena dira, besteak beste, Yllanak landuko dituen gaiak, bere umore berezi eta korrosiboarekin.

GREENPISS, una divertidísima sátira sobre la ecología y el futuro de la humanidad. Un desmadre ECO-ILÓGICO. El calentamiento global, el uso abusivo de los plásticos, la exterminación de miles de especies animales, el consumismo desenfrenado y la posible desaparición de nuestra propia especie, son algunos de los temas que abordará Yllana, con su particular y corrosivo humor.

**ALDEZ AURRETIK / ANTICIPADA 13,00 €**
**TAKILAN / TAQUILLA 16,00 €**

ASTEAZKENA **9** MIÉRCOLES

Gizarte Etxean - Centro Cívico
18:30 h.




## YO, VIEJA

Ana Freixas autorearen eskutik, "Yo, vieja" liburuaren aurkezpena. Ibildide bat zahartzaroko giza eskubideen alde, zehazki emakumeen eskubideen alde. Askatasuna, justizia eta duintasuna. "Yo, vieja" askatasunaren aldeko kantua da, zahartzaro eroso eta harroaren aldekoa. Pertsona guztien artean zahartzaro, dotorea, lasaia eta irmoa izan dezagun.

Presentación del libro "Yo, vieja", de la mano de su autora, Ana Freixas: un recorrido por los derechos humanos en la vejez, concretamente por los derechos de las mujeres, sintetizados en libertad, justicia y dignidad. "Yo, vieja" es un canto a la libertad y al desparpajo; a la vejez confortable y afirmativa. Con la pretensión de que entre todas las personas consigamos vivir una edad mayor elegante, relajada y firme.

HILEAN BEHINGO IRTEERA - SALIDA MENSUAL

LARUNBATA **12** SÁBADO

Lapurbide plazatik
Plaza Lapurbide
12:00 h.

Familientzat - Familiar

## ANTSOAINEN KANTUZ

ANIMAZIOA ZINEMA. ANTSOAIN KOMIKI BOOM. GAZTELANIAZ
CINE ANIMACIÓN. ANTSOAIN KOMIKI BOOM. EN CASTELLANO

LARUNBATA **12** SÁBADO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
20:00 h. (80 min)

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto




# JOSEP

**Zuzendaria: Aurel.** 1939, Otsaila. Francoren diktaduratik ihesi joandako errepublikarren uholdea dela eta, Frantziako gobernuak espainiarrak kontzentrazio-esparruetan sartzea erabaki du. Eremu haietako batean, bi gizon, arantzazko alanbre batez banandurik,lagun egiten dira. Horietako bat Josep Bartoli da, Francoren erregimenaren aurka borrokatzen duen marrazkilaria.

**Dirección: Aurel.** Febrero, 1939. Abrumado por la oleada de republicanos que huyen de la dictadura de Franco, el gobierno francés opta por confinar a los españoles en campos de concentración. En uno de aquellos campos, dos hombres, separados por un alambre de púas, traban una amistad. Uno de ellos es Josep Bartoli, un dibujante que lucha contra el régimen de Franco.

**PRECIO / PREZIOA 3,00 €**

KONTZERTUA - CONCIERTO

LARUNBATA **19** SÁBADO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
20:00 h. (85 min)

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto



# JAVI ROBLES

Javi Robles 2019an hasi zen lanean rock akustikoa eta folka bezalako generoetan, Ciudad Jara, La M.O.D.A, Frank Turner edo Brian Fallon bezalako eraginekin. Bere abestiak erraietako eta eduki zabaleko letrez osatuta daude, bere belaunaldiko mutil baten sentimenduei ahotsa ematen dietenak. Hogei single baino gehiagoko  ditu eta bi EP argitaratu ditu, 'Jana (2019)' eta 'Los mariachis también lloran' (2021).

Javi Robles comenzó su actividad en 2019 enfocado en géneros como el rock acústico y el folk con influencias como Ciudad Jara, La M.O.D.A, Frank Turner o Brian Fallon. Sus canciones se componen de letras viscerales y de amplio contenido, que dan voz a los sentimientos de un chaval de su generación. Dispone de una colección de más de una veintena de singles y dos EPs publicados 'Jana(2019)' y 'Los mariachis también lloran' (2021).

**PRECIO / PREZIOA 3,00 €**



CONCIERTO TEATRALIZADO. GAZTELANIAZ - ANTZERKI TEATRALIZATUA. EN CASTELLANO

IGANDEA **20** DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:00 h. (60 min)

JAZZBANA ENSEMBLE

6 urteetatik aurrera
A partir de 6 años




## BUEN VIAJE ABUELA BRAULIA

Sarahk bere amonaren egunerokoa irakurtzen digu, Estatu Batuetara bidaiatu zuen bateria-jotzailea, eta hark bizi izan zituen pasadizoak kontatzen dizkigu, musikaren historiako benetako uneak sortuz eta bandarekin modu didaktiko eta dibertigarrian irudikatuz. Musika modernoaren historia kontatzen du, duela 100 urte baino gehixeago hasi zenetik new orleans estiloaren garaira arte, bebop generoraino.

Sarah nos lee el diario de su abuela, una baterista que viajó a los Estados Unidos, y nos cuenta las anécdotas que esta vivió, recreando momentos reales de la historia de la música y representándola con la banda de manera didáctica y divertida. Cuenta la historia de la música moderna, desde sus inicios hace algo más de 100 años con la época del estilo de new orleans, hasta el bebop.

PRECIO / PREZIOA 4,00 €



IPUIN-KONTALARIA. EUSKARAZ - CUENTA CUENTOS. EN EUSKERA

ASTEAZKENA **23** MIÉRCOLES

Liburutegia
Biblioteca

## PONTXAREN IPUIN ANITZAK

JAIONE URTASUN

17.30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat
18.15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat

17:30 De 3 a 5 años
18:15 De 6 a 12 años

DOAKO SARRERA - ENTRADA LIBRE

DOKUMENTAL FEMINISTEN ZIKLOA. GAZTELANIAZ
CICLO DE DOCUMENTALES FEMINISTAS. EN CASTELLANO

OSTEGUNA **24** JUEVES

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:30 h. (90 min)

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto




## EN TRÁNSITO

**Zuzendaria: Oskar Tejedor.** Egonkortasun ekonomikoa aurkitzeko Europara bakarrik bidaiatzen duten milaka ama latinoamerikarren errealitateak aztertzen ditu, baita urrunean seme-alabekin ezartzen duten harreman transnazional horren ondorioak ere. Aipatzen ez diren muga-egoerak, ezagutzen ez direnak eta bizitza osorako oihartzun handia izango dutenak.

**Dirección: Oskar Tejedor.** Aborda las realidades de miles de madres latinoamericanas que viajan solas a Europa para encontrar una estabilidad económica y las consecuencias de esa relación trasnacional a la distancia que establecen con sus hijos e hijas. Situaciones límites de las que no se habla, de las que no se sabe y que tendrán una importante repercusión para toda su vida.

DOAN - GRATUITO

IGANDEA **27** DOMINGO

Antsoaingo Antzokia - Teatro Ansoáin
18:30 h. (90 min)

## ROBERTO URRUTIA

Gazte eta helduentzat
Juvenil-adulto




# VIVIR LA VIDA

Roberto Urrutia itzuliko da, ohituta gaituemoduan, ikuskizun handia eta inolako murrizketarik gabe. Horregatik, genero guztietako artistez betetako kontzertua aurkezten digu: mariatxia, lirikoa, euskalduna, joteroa, latinoa... Ahots, instrumentu eta dantza maila handiko artistak.

Roberto Urrutia vuelve a la carga, tal y como nos tiene acostumbrados y el espectáculo al máximo y sin recortes de ningún tipo. Por ello, nos presenta un concierto lleno de artistas de todos los géneros: mariachi, lírico, euskaldun, jotero, latino...... Artistas de gran vocal, instrumental y baile.

**PRECIO / PREZIOA 10,00 €**




# INFORMAZIO INTERESGARRIA
# INFORMACION DE INTERÉS

## SARREREN SALMENTA – VENTA DE ENTRADAS

**ANTZOKIKO LEIHATILAN**

Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012).

Sarrerak antzokiko leihatilan hartuko dira ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita.

INTERNET www.ansoain.es SARREREN SALMENTA.

Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora sartu zaitezke.

Ez da aldaketarik edo itzultzerik onartzen. Soilik ikuskizuna bertan behera utziz gero.

**TAQUILLA DEL TEATRO.**

Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo.

TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012).

Las entradas se recogerán en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo del espectáculo.

INTERNET www.ansoain.es VENTA DE ENTRADAS.

Con el justificante de compra por internet puedes acceder directamente a la sala.

No se admiten cambios ni devoluciones, excepto por cancelación de un espectáculo.

idaki

# HIRU HILEKO 2022ko KUOTAK
# CUOTAS TRIMESTRALES 2022

## ABONO **URA** ABONUA
IGERILEKUAK + HIDROTERMALA
PISCINAS + HIDROTERMAL

**20,5€** x hilabetea/mes*

## ABONO **GIM** ABONUA
URA ABONUA + GIMNASIOA
ABONO URA + GIMNASIO

**30,5€** x hilabetea/mes*

## ABONO **KIROL PLUS** ABONUA
URA ABONUA + KIROL JARDUERAK
ABONO URA + ACTIVIDADES

**40€** x hilabetea/mes*

## ABONO **IDAKI** ABONUA
URA ABONUA + JARDUERAK + GIM
ABONO URA+ ACTIVIDADES + GIM

**48€** x hilabetea/mes*

* Hiru hilean behineko ordainketak. Salneurri hauek ez dute izen-emate kuota barne (16 urte baino gehiagokoentzat). // * Pago trimestral. Precios sin incluir cuota de inscripción (Mayores de 16 años).
Pertsona abonatu izaera hartzean, urtebete nahitaez egoteko konpromisoa dago. // Al adquirir la condición de Persona Abonada existe compromiso de permanencia obligatorio de 4 trimestres.

Zure kirol guztia
**klik batean**

**Jarduerak streaming bidez**

Bat egin: IDAKI TB, eta erreserbatu orduak aplikazioan

Todo tu deporte
**en un click**

**Retransmisión de actividades vía streaming**

Súmate a IDAKI TV a través de la aplicación de reserva de hora

IDAKI
**GEHIAGO DA**

IDAKI
**ES MÁS**

+info

948 14 07 82 - **www.idaki.org**

ANTSOAINGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ANSOÁIN